

## IÑAUTERIAK



TRAPUJALE

Gaur Lezoko iñauterien asiera  
Trapujalek emango baidu bere agerpena  
etorriko baida Jaizkibel aldetik goitik beera  
Lezoko plazan egingo du bere sarrera.

Antxen egongo da jendea asko, zai  
iñauteriak direla ta denak pozez egiteko jai  
gazte ta zaar denak egoteko alai  
gogo onez ikusteko izan gaitezen gai.

Far egiteko berez ona izan ezkeru  
gustora egoten naiz ni, jendeari begira gero  
broma, berez gusto onekoa izan ezkeru  
iñorreri miñik eman gabe, beti ondo dago.

Ikusiko ditugu ba, zer iñauteriak izaten ditugun  
garbiak izan daitezela ta egunez egun  
lasaikeria, zikinkeria, gaiztokeria, urrutiratu ditzagun  
ta sortu daiela gure artean denak izanez lagun.

Egun oiek bedere pasa ditzagun elkartasunean  
aserrerik eta okerrik gabe, elkarren artean  
onek asko esan nai du ondo artuaz laguntasunean  
gogo onez izan gaitezen beste urtea datorrenean.

Joango gera gauza berriak asmatzen  
gauza txarrak atze aldera uzten  
jolasketa onak gogo onez artzen  
arturik ditugun oitura txarrak atzeratzen.

Ori iristen badegu pausu on bat eman degu  
jendearen laguntasuna iristen badegu  
arrisku txarrean arkitzen diranak ortik ditezen aldendu  
ta onez onean gaur onetara ditezen bildu.

**1989garren urteko Otsailak 11  
IBARRATAR MIKELE**